

# INGURUMEN KUDEAKETA ETA SENTSIBILIZAZIOKO ZERBITZUEN KARTAREN JARRAIPENA. 2016

## KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA

### 1. KONPROMISOA

IM-SCPSA sozietatearen jardueraren ondoriozko Karbono Aztarna ezagutaraztea bultzatzea, erakunde akreditatu batek horren ziurtagiria egitea eta Karbono Aztarnaren erregistroan horren izena ematea.

Erakundearen Karbono Aztarna ezagutu eta horren zabalkundea egitea, emandako zerbitzu unitate bakoitzeko.

*2016ko lehen seihilekoan, 2016. urteko CO<sub>2</sub> isurketen kalkulua egin zen. AENOR erakundeak egiaztatu zituen eta 1+2+3 norainokoetarako ziurtagiria egin zuen 2016ko ekainean, 54.996,79 t CO<sub>2</sub> baliokide sortuta. IM-SCPSAren Karbono Aztarnaren izen-ematea Erregistroan 2016ko urrian eguneratu zen.*

*Karbono Aztarnaren kalkuluarekin batera, Murrizteko Plana eman da, aztarna hori murriztera bideratutako neurriak barnean hartzen dituena.*

*Behin karbono aztarna ezagututa, emandako zerbitzu unitate garrantzitsuenetarako kalkulua egin da.*

*Lan honi zabalkundea emateko, lantokietan AENORen ziurtagiriak kokatu dira, eta erregistroan izena eman izana intranetean eta erakundearen webgunean ezagutarazi da. Era berean, hainbat talderentzat, berariazko aurkezpenak egin dira, eta prentsaurreko bat egin da herritar orok izan dezan honen berri.*

*Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.*

### 2. KONPROMISOA

Energia berriztagarriaren aprobetxamendua maximizatzea, bai Urtasun, Egillor eta Eugiko zentral hidroelektrikoetatik lortzen dena, bai eta hondakinetatik sortzen den biogasetik lortzen dena (Arazuriko araztegiko eta Gongorako lohiak).

*2016an, 50,08 milioi kWh energia ekoitzi ziren, jatorri hidroelektrikoak eta biogasekoak. Kantitate hori aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan zen. Zehazki, Gongorako HHTZko eta Arazuriko HUAko instalazioetako biogas kantitatea handitu zen, baina energia hidroelektrikoa murriztu egin zen, urtean zehar prezipitazio kantitatea txikiagoa izan zelako.*

*Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.*

## INGURUMEN KUDEAKETA IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN

### 3. KONPROMISOA

**Ingurunearen kutsadura zaintzea eta kontrolatzea erakundearen jarduketekin lotutako esparruaren barnean.**

*Hileroko maiztasunarekin, aurretik ezarritako kontrolak egin dira jada itxita dagoen Argiñarizko zabortegian. 2016an, Arga ibaiaren kalitatea aztertzeko hileroko kontrolak egiten jarraitu dugu bost tokitan: Iruñean, Arazurin, Ororbian, Etxaurin eta Garesen. Toki horietan kontrola egitearen helburua da beste ibai batzuk edo isurketak gehitu ondoren Arga ibaiko uraren kalitatea zein den jakitea. Arakil ibaia toki batean kontrolatzen jarraitzen da.*

*2016an, Gongorako HHTZn, lurgaineko uren kontrol berberak egiten jarraitu da, zabortegitik urari goiti eta urari beheiti, zabortegiaren jarduerak berak kutsatzen ote duen ikusteko. Kontrolak hiru hilean behin egiten dira, bost tokitan lurgaineko ura badago, eta zazpi tokitan lurpeko urak kontrolatzeko.*

*HUAN konpostaje itxi edo konfinatuaren prozesua dela-eta, instalazioak duen usain eragina ikusteko azterlan olfatometrikoak hiru urtean behin egiten dira. 2016an, hain zuzen, ez zen egin.*

*Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.*

#### **4. KONPROMISOA**

**Gure obrek eta instalazioek ingurumenari eragiten dizkioten kalteak minimizatzea.**

*Gure obren eta instalazioen ingurumen eraginak minimizatzeko, 2016an, ingurumenarekiko kalteen zazpi azterketa egin dira:*

- *Elo-Getzeko HUA.*
- *Zildoeko hustubidea eta arazte hobia.*
- *Makirriaingo hustubidea eta arazte hobia.*
- *Eugi hornitzea.*
- *Lizasoingo biltegia eta goi hornidurako hodia eta giltzen ganbera berritzea.*
- *Arreko biltegia.*
- *Artetako ubideak egokitzea Saldise/Egillorren.*

*Azpiegiturak integratzeari dagokionez, Burlatako biltegia argiztatu da, apaintzeko argiak jarrita, kolore desberdinetakoak, baina, era berean, bandalismoa gutxitzeko helburuarekin.*

*Azterlan hidrogeologikoa egin da Makirriaingo arazte hobiaren gainean .*

*Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.*

## **HONDAKINAK MURRIZTEA ETA IN SITU EDO TOKIAN BERTAN KUDEATZEA BULTZATZEA**

#### **5. KONPROMISOA**

**Etxeko eta auzoko konpostajea sustatzea, etxebizitzetako hondakin organikoak aprobetxatzeko.**

*2016an, udaberrian urtero egiten den kanpainaren bidez, 153 familiak egin zuten bat etxeko konpostajerako programarekin. Gainera, udan, Mankomunitatearen landa esparruan gai organikoen kudeaketa ezartzeko azken fasea hasi zen eta, hartara, lortu zen urte amaierarako 965 familia gehiago izatea etxeko konpostajeari atxiki zitzaizkionak. Horrenbestez, 3.065 familia dira beren etxebizitzetan konposta egiten dutenak. Auzoko konpostajeari dagokionez, 2016aren amaieran 33 gune zeuden martxan (eta 714 ziren*

parte hartzen zuten familiak). 2016an, Ballariainen auzoko konpostajerako gunea jarri zen martxan. Gainera, landa eremuan gai organikoen kudeaketa ezartzeko azken fasea egin eta gero, badakigu 480 familiak beren hondakinak kudeatzen dituztela beren baliabideekin (animaliak, beren konpost-ontzia...). Kalkulatu da prebentzio neurri horien bidez 2016an etxebizitzetako 2.110 tona hondakin organiko kudeatu zirela. Halaber, 2016an, konpostajeari buruzko hiru hilean behingo buletin bat kaleratzen hasi ginen. Hain zuzen, posta elektronikoa bidez bidaltzen zaie etxeko eta auzoko konpostajearen izena emanda ditugun kontaktu guztiei.

#### **Berrerabil daitezkeen edalontziak eta pitxerrak lagatzea.**

2016an, edalontziak maileguan uzteko 30 eskaerei eman zaie arreta.

#### **Elikagaien Bankuari atxikitako supermerkatuetatik jan-edanak biltzea egunero.**

2016an, supermerkatuetan eta elikagaien dendetan sobera gelditu diren jan-edanen 842 t bildu eta garraiatu ziren, ezin zirelako merkaturatu. Hain zuzen, Elikagaien Bankuari eman zitzaizkion, hark kudeatu eta erabil zitzaizkan, eta, gainera, ekidin zen hondakin bihurtzea.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

## **INGURUMEN HEZIKETA ETA SENTSIBILIZAZIOA**

### **6. KONPROMISOA**

**Ekoizpen instalazioak irekita edukitzea herritarrentzat, egokituta dauden jardueren eta baliabideen zerbitzu batekin.**

Iruñerriko Mankomunitateak bere zazpi ekoizpen instalazioetatik sei eduki ditu irekita urtean zehar, jarduerak eta baliabide egokituak eginez. Hain zuzen, Artetakoak itxita jarraitzen du, lur eta harri jauziak gertatzeko arriskua dagoelako.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

### **7. KONPROMISOA**

**Ingurumen heziketarako programa bat eskaintzea, uraren, hondakinen, garraioaren eta ibai parkearen gaitan, Iruñerriko ikastetxeei, taldeei eta partikularrei.**

2015/2016 ikasturtean, ingurumen programan parte hartu duten ikastetxeak 124 izan ziren eta parte-hartzaileak, berriz, 37.585. Aurreikusita zegoen 40.000 inguru izatea, eta, beraz, gutxiago izan ziren, ziur asko, Artetako jarduerak ezin izan zirelako egin. Horrez gain, 59 taldetako 3.680 laguni eman zitzaizkien zerbitzua ikasturte horretan. Hain zuzen, jaso ziren eskaera guztiei erantzun zitzaizkien.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

### **8. KONPROMISOA**

**Ingurumen informaziorako eta heziketarako zentroen sarea irekita edukitzea (Atarrabiako Pilategia, San Andres Errota eta Mendillorriko Uren Etxea), eta Iruñerriko Mankomunitatearen**

**jarduerak edo beste batzuekin elkarlanean egindakoak sustatzea zentro horietan eta naturguneetan (Ibai Parkean eta Mendillorriko pasealekuan).**

*2016an, irekita eduki ziren ingurumen informaziorako eta heziketarako hiru zentroak, eta ia 11.300 bisitari izan ziren haietan. 75 jarduera sustatu ziren eta haietara ia 35.000 lagun joan ziren.*

*Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.*

## **ERREKLAMAZIO, IRADOKIZUN ETA KEXEN KUDEAKETA**

### **9. KONPROMISOA**

**Karta honen edukiarekin lotutako erreklamazioei, iradokizunei eta kexei 15 eguneko epean arreta ematea, erantzutea eta horiek konpontzea.**

*Karta honen edukiarekin lotutako 8 erreklamazio, iradokizun eta kexa jaso ziren. Haietatik 7ri ezarritako 15 egunetako epean eman zitzaaien arreta eta zortzigarrenari epe horretatik kanpo. Beraz, hobetu egin beharko da alderdi hori.*

*Horrenbestez, konpromisoa ez da jotzen guztiz betetzat.*